



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

“K-ZERO”, GASTEIZKO ARTISTA ETA SORTZAILEEI SORTZEN LAGUNTZEKO PROGRAMA, 2019-20

Hezkuntza eta Kultura Sailak profesionalizatzeko asmoa duten artista eta sortzaile lokalei sortzen laguntzeko bide emango duen lan-ildo bat jorratzea proposatzen du, Udalak dituen baliabideak oinarritzat hartuta, eta GASTEIZKO 2016- 2021 KULTURAREN PLAN ESTRATEGIKOAREN barruko programetako batekin lotuta: KULTUR EKIPAMENDUAK LANKIDETZAN.

2019ko urtarrilaren 29an Gasteizko kultur ekipamendu publikoekin lotutako erabilerak, zerbitzuak eta programak birdefinitzeari buruz egindako lan-mahaian hiriko kultur eta sorkuntza sektoreak egindako ekarpenetatik harira dator proposamena.

Lanerako hasierako fasea litzateke hori, probatu ahala handitu litekeena, dauden baliabide ekonomikoak, giza eta leku baliabideak eta abar aintzat hartuta.

Azpimarratu beharra dago Udalaren helburua ez dela hirian aurretik dauden jarduera profesional pribatuak oztopatzea, eta haiekin koordinatuko dela, denen arteko bizikidetzaren erraztearen.

HELBURUAK

Gasteizko Udalaren Kultura Sailak hiriko sortzaileei eta talde eta entitate artistikoei sorkuntza-prozesuan laguntzeko abiarazi du programa hau, beharra izanez gero Udalak dituen espazioak erabiltzerik izan dezaten.

Programaren helburu nagusia da tokiko artista eta sortzaileei sorkuntza-prozesua erraztea eta horretarako aukera ematea udalak orain dituen kultur ekipamenduen barruan —ekipamenduen ohiko erabilerekin batera jardunez—, eta prozesuak dakartzan gastuak ordaintzen laguntzea.

BETEBEHARRAK ETA ESKAKIZUNAK

Interesa duten kultur eragileek eskabidea osorik bete beharko dute, eta hori balioesteko garrantzitsutzat jotzen dituzten agiriak erantsiko dituzte.

Kultura Sailak aztertuko ditu eskabideak, eta sorkuntza-proiektua gauzatzeko aukerak proposatuko dizkio eskatzaileari. Bi alderdiek akordio batera iritsi beharko dute, proiektuaren beharrak eta erabilgarri dauden baliabideak kontuan hartuz.



Interesa duten entitate edo pertsonak une honetan ekipamendu publikoren bat lagata badute, edo espazio propiorik badute, berariaz arrazoitu beharko dute eskabidea.

Lekua erabiltzeko baldintzak hitzartzen direlarik, Kultura Sailak

- Dena delako espazioaren okupazioa kudeatuko du.
- Aukeratutako espazioan gutxienez zenbat teknikari eta/edo laguntzaile behar diren zehaztuko du; Udalaren kontura joan ahalko da hori.

Sortzaileek eta talde eta entitate artistikoek dena delako espazioa erabiltzeko arauak betetzeko konpromisoa hartuko dute, baita lankidetzarako ezartzen diren berariazko baldintzak betetzeko ere.

Proiektua amaitu ondoren, arte eragileak jardueren oroitidazki laburra aurkeztuko dio Kultura Sailari, egindako prozesua eta hasierako helburuen betetze-maila azalduz.

HARTZAILEAK

Nagusiki arte eta kulturaren inguruko sorkuntza-proiektu bat izan eta Gasteizen helbidea duen pertsona fisiko edo juridiko oro, profesionalizatzeko asmoa badu eta proiektua garatzeko lanerako espazio baten beharra justifikatzen badu.

DEIALDIA - EPEAK

Deialdia jarraitua izango da, sortzaileek eskabidea beren sorkuntza-prozesuaren eta beharren arabera egin dezaten, erabilgarri dauden baliabide ekonomikoak agortu arte.

Ebazteko epeak: legez formalizatutako eskabidea erregistratu ondorengo bi hilabeteetan.

Lagapenaren gehieneko iraupena: berariaz zehaztuko da sorkuntza-prozesu bakoitzerako, eskatutako espazioaren arabera, eta ez da inoiz urtebetetik gorakoa izang

ESKABIDEEN AURKEZPENA

Eskabideak aurrez aurre aurkeztu ahalko dira, herritarrei laguntzeko bulegoetan, edo Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoan, helbide honetan: <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org> orobat aurkeztu ahalko dira legez aurreikusitako gainerako moduetan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.

ERABIL DAITEZKEEN ESPAZIOAK

Programaren barruan zein espazio eska daitezkeen zehazten da ondoren. Onuradunak espazio jakin bat eskatu ahalko du, edo Kultura Sailarekin adostu zein erabiliko duen, proiektuaren beharrei ondoen egokitzen zaiona identifikatzearen.

Montehermoso kulturunea: <https://www.montehermoso.net/>

Udal Antzoki Sarea: <https://www.vitoria-gasteiz.org/we001/was/we001Action.do?aplicacion...>

Gizarte etxeak:

https://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/was/contenidoAction.do?idioma=es&uid=251bdba1_11950533854_7ff1

ONARPEN IRIZPIDEAK:

1. Sorkuntza-prozesuaren interesa, kalitatea eta berrikuntza.
2. Eskabidea egiten duen pertsona edo entitatearen prestakuntza eta/edo lan ibilbidea.
3. Garatzekoa den proiektuaren eta eskatutako espazioen arteko koherentzia.
4. Aurkeztutako proiektuaren behar tekniko eta ekonomikoen bideragarritasuna.

LAGAPENAREN BALDINTZAK:

Eskabidea egiten duen pertsona edo entitateak agiri bat sinatuko du, non espazioa lagatzeko baldintzak, erabiltzeko arauak, onartzeko prozedurak eta beste zehaztuko baitira.

Horietakoren bat betetzen ez bada, berehala utziko da indarrik gabe lagapena. Kasu horretan, eskabidea egin duen entitateak edo pertsonak espazioa erabili bitartean sortutako gastu guztiak ordaindu beharko ditu: erabilera-tasak eta behar teknikoak. Arau-haustea zein den, kalteak eta galerak ordaintzeko ere eskatu ahalko da.